



EZAUGARRIAK

Iruñeko HEO helduentzako hizkuntza irakaskuntzako zentro ofiziala da Nafarroako Gobernuko irakaskuntzako sare publikokoa. Bertan legeak jarririko baldintzak biltzen dituzten pertsona guztiek hainbat hizkuntza hainbat formatutan ikas ditzakete, prestakuntza pertsonal eta profesionalean beste tresna bat izateko, hizkuntzen jatorriko hiztunen kultur errealitatea ezagutu eta hizkuntza gaitasunean duten mailaren ziurtagiria erdiesteaz gain.

XEDEA

- Ikastetxe eleaniztun eta kulturantzuna den aldetik, IHEOk errespetua, berdintasuna eta dibertsitatea sustatzen dituen gizarte eredu bat sortzen laguntzen du.
- IHEO Nafarroan hizkuntza irakaskuntzako erreferente bat da eta gizartearen beharra eta bigarren hizkuntzen erabileran gaituriko pertsonen lanbide esparruen beharra ase eta hizkuntza anitzen erabileran gaitasun handiagoa izan den gizarteko liderra izan nahi du.

IKUSPEGIA

GIZARTEARENGANAKO IREKITASUNA:

- Gizartearen eskaerari erantzuna eman nahi diogu beste zenbait hizkuntza eta beste zenbait ikaskuntza maila gehituz eta ikastaro espezifikoak eskaini nahi ditugu.
- Gainera, hizkuntza irakaskuntzako erreferente, ez hemen bertan bakarrik, nazioarteko mailan ere izan nahi dugu, beste zenbait herrialdetako eta erkidegotako zenbait ikastetxerekin proiektuetako lankidetzak sareak eratuz.

KUDEAKETA:

- Kudeaketa eta barne eta kanpo komunikazio ereduak izan nahi dugu ekipamendu teknologiko ona izanik.



- Ikastetxeko kultura komuna lortu nahi dugu eskolako departamentuen eta sektoreen elkarrekintzaren bidez.
- IHEO zentro iraunkorra izanarazi nahi dugu, non ingurumenarekin erlazionaturiko alderdi guztiak bertako bizitza arruntean sarturik egonen baitira, lau esparrutan lan eginez: eskola ingurunea, hondakinak, ura eta energia.

IRAKASLEAK:

- Irakasleen prestakuntza eta esperientzia trukea erraztea.
- Berrikuntza pedagogiko eta metodologikoa indartzea.
- Irakasleei kalitateko hezkuntza ekintza gauzatzea ahalbidetuko dieten baliabide eta baldintzak ematea.
- Koordinazio didaktikoko egiturak indartzea, bai hizkuntzaz, zikloz eta ikasmilaz bai irakasle departamentuz, talde lana sustaturik.

IRAKASKUNTZA - IKASKUNTZA PROZESUA:

- Ikasleengan hizkuntza murgilketaren garrantzia sustatzea, hizkuntzaren eta haren hiztunen kulturaren ezagutza globalagoa izateko, nazioarteko proiektuetako lankidetzatik sortuko diren prestakuntza programen barnean atzerrira joatea errazturik.
- Gure ikastetxean hizkuntza gaitasunik handiena eskaintzea, formatu barietatea eta aniztasuna eta irakaskuntza-ikaskuntza estiloak gehituz, proposamen eta ikusmolde ez-formaltzat jo dezakegun orotan bereziki.
- Ikasleei era autonomoan ikasteko estrategiak ematea, bizitza osoan zeharreko ikaskuntza sustatuz.

ANIZTASUNA KONTUAN HARTZEA

- Hasi berri absolutuei eta ez-absolutuei arreta ezberdina emateko mekanismoak jartzea.
- Arreta espezifikoak emateko mekanismoak jarri eta baliabide egokiez, didaktikoez eta ez-didaktikoez, hornitzea desgaitasun fisikoak edo zentzumen desgaitasunak dituzten edo eta beste kultura batzuetatik etorrita bertakotze prozesuan diren pertsonentzat.

DC050101	Xedea, ikuspegia eta balioak	Ber:1	2015/1/8	Or.:2/3
----------	------------------------------	-------	----------	---------



BALIOAK

- Profesionaltasuna. Hezkuntza komunitateko kide guztion erantzukizuna
- Lidergo partekatu eta kooperatiboa
- Ikastetxearen autonomian oinarrituriko lan antolakuntza
- Kultur eta hizkuntza ezberdintasunarekiko errespetua
- Aldaketei aurre egiteko borondatea berrikuntza gehituz
- Gizartearen eskaerekiko jarrera harkor eta irekia
- Kalitateko eskaintza hizkuntzen irakaskuntza akademikoan
- Ziurtatze proben baliozkotasuna eta fidagarritasuna
- Gure komunitatean diren hizkuntzen erabileraren sustapena ikastetxean